

**Agirreazkuenaga, Joseba (arg.)** *Barne-muinetako Sabin Arana Goiri : Gutunak I (1876-1903)*, Donostia: Utriusque Vasconiae, 2011, 447 or.

Joseba Agirreazkuenagak Paulo Iztueta ren laguntzaz prestatu duen liburu hau sorta baten zortzigarrena da, Euskal Pizkundeko pertsonaia nabarmenen gutunak argitaratzea helburu duen sorta batena, hain zuzen ere. Orain arteko beste guztiak idazleak edota itzultzaileak izan dute gaitzat (Orixe, Zaitegi, Lizardi eta Bingen Ametzaga) baina oraingoan politikari eta ideologo bat da protagonista, euskal abertzaletasunaren sortzailea, Sabino Arana Goiri. Hortxe kokatu beharko genuke, hain zuzen ere, lehenengo hausnarketa: Arana ez zen politikari hutsa izan, baita ere idazle, kazetari eta kultur eragilea izan zen, era berean goian aipaturiko besteak ere idazle *huts* izan ez ziren bezala, guztiak izan baitzuten dimentsio politiko nabarmen bat. Izan ere, badirudi euskal idazle izateak, XIX-XX. mendean bederen, berez bezala dakarrela norberaren bizitzak eta lanak ageriko dimentsio politiko bat ere izatea; beste hitz batzuekin esanda, gaur egun posible den bezala euskal idazle *huts* izatea, ez zen horrelakorik gertatzen Euskal Pizkundearen garaian (1876-1936), ezta frankismo aldian ere. Kontrakoa, noski, arruntagoa izan dugu, hots, errazagoa izan da gurean politikari *huts* izatea, urrunago joan gabe hortxe ditugu Jose Antonio Agirre edo Manuel Iruoren kasuak. Baina, berriz ere horretara goaz, euskal abertzaletasun politikoaren sortzaile handiek luma ederki dantzatu izan dute, eta asmo literariozko idazlanek ere toki nabarmena bete izan dute kazetaritza, debate eta dibulgazio lanen artean, honela Sabino Arana Goiri, Arturo Campion, Txillardeggi, Txabi Etxebarrieta edo (zergatik ez aipa?) Mario Onaindia. Beraz, lehenengo hausnarketari amaiera emateko, esan dezagun Aranak toki naturala betetzen duela Paulo Iztueta k zuzentzen duen Utriusque Vasconiae argitaletxeko liburu bilduma horretan.

Bigarren hausnarketa kontu itxuraz marginal bati dedikatua egon behar du, itxuraz marginala diot, baina gurean ikaragarritzko lekua hartzen duena gaur egun ere: pertsonen izenak eta deiturak. Jakina denez, Arana Goiri izan zen gai hori, beti garrantzi handikoa euskaldunen artean XVI. mendetik aurrera behintzat, lehen-lehen planora ekarri zuena gure gizartera arrakasta ikaragarria izan duen izendegi berri eta erabat iraultzailea proposatuz. Ez da inola ere esajerazioa esatea gure protagonistaren lan nagusia gauzei izen berriak ipintzea izan zela, hala nola egin zuen Jainkoak mundua kreatean (Has 1,1-2,3) edo, zehatzagoa agian, Adamek bere emazte Evari izena ematean (Has 3,20); bada, berdin-berdin egin zuen Sabinok *bere* munduarekin (Euskaria, Euskadi), *bere* emaztearekin (Nicolasa, handik aurrera Nikole), eta, noski, baita *bere* lagunekin ere (Angel-Aingeru-Gotzon Zabala, adibidez). Eta, jakina denez, baita *bere* buruarekin ere: Arana eta Goiri'tar Sabin. Ez da dudarik hori dela berak berarentzat hautatu zuen izena, kosta ahala kosta zabaldu nahi izan zuena... baina horrela deitu behar ote diogu geuk? Galdera gure artean sarritan ateratzen da eta ez du erantzun errazik izaten, besteak beste kontsiderazio desberdin asko etorri ohi direlako batera. Liburu honen prestatzaileak, adibidez, hautu batzuk egin ditu protagonistak izendatzeko (ik. "Aurkibide orokorra", 7. or.): "Pascuala [Goiri]", ama, baina "Nikolasa Atxikallende", emaztea, edo "Angel Zabala" eta "Luis Eleizalde" (eta ez Nikole, Aingeru/Gotzon edo Koldobika, Sabinok deitzen zituen bezala) eta, bukatzeko

protagonistari berari “Sabin” deitzen dio, liburuaren izenburuan ikus daitekeen bezala. Zein da izendapen horien logika? Nire uste apalean kontu honi dagokionez logika bat eta bakarra dago: norberak bere buruari ematen dion izena (edo grafia, edo forma) ez da, inola ere ez, behin betiko arrazoia geuk ere izen horren bidez hura izendatzeko; argudio bat da, dudarik gabe kontuan hartu beharreko datua, baina gizarteak (edo ohiturak) de facto pertsona bati ematen dion izena da *ultima ratio*. Alegia, Julio Zesar horrela deitzen dugu konbentzio hutsez, ez beste ezerengatik; bada, berdin Sabino Arana Goirirekin edo, kasurako, Fernando Savaterrekin: ez dago arrazoi erabakigarriarik gizarte-ohituraz harantzago. Jakina, gizarte-ohiturak ere sortu, landu, arrazoitu eta, zenbait kasutan, berriztu eta zuzendu egiten dira; hori da, hain zuzen ere, Arana Goirik egin nahi izan zuena bere garaian, arrakasta nabarmenez gainera. Baina arrakasta hori bera ez zen mugagabea izan: *'tar* sistema, adibidez, gaur egun ez da ontzat hartzen ezein kasutan, ponte-izenak kasu batzuetan onartzen dira (beste batzuetan ez) eta deiturak euskal grafian idaztea gero eta zabalduago dago (salbuespen handiekin oraingoz). Beraz, pertsonaia historiko horiek izendatzeko gaur egungo ohituretatik abiatu behar gara erabakiak hartzeko (eta ez beren garaiko ohituretatik) eta horren arabera jokatu. Eraitza ez da beti behin betikoa eta asebetegarria izango, tamalez euskararekin lotutako gizarte-ohiturak oraindik ez baitaude ondo finkatuta (euskal deituretan euskal grafia erabiltzearena, adibidez) baina oro har esango nuke ni neu ados nagoela liburu honen proposamenekin, bi kasuetan salbu: “Sabino” oso sustraituta ikusten dut orain aldaketa bat (“Sabin”) proposatzen ibiltzeko, hori egitea legitimoa eta zentzuzkoa bada ere, eta, aldiz, haren emaztearen izentzat “Nikole” emango nuke (eta ez “Nikolasa”) arrazoi beragatik, hots, ez dagoelako oraingoz forma ondo sustraitu bat, pertsonaia gutxi ezaguna izan den heinean. Eta, jakina, izendeiturak grafia modernoan ematea oso egokia iruditzen zait, eta *'tar* bezalako kontuak zaharkituztat jo behar baditugu (zuzen jo ere) arrazoi beragatik ez dira ontzat eman behar *de* bezalakoak izena eta deitura artean tartekatzea (Luis *de* Eleizalde). Bide batez, liburuan agertzen den “Luis Elizalde” (7, 342 or.) errakuntza bat da, jakina denez “Eleizalde” baita haren deitura, gutunetan sistematikoki agertzen den bezala. Baina orain eta hemen ezin ditugu kasu guztiak aztertu, zenbait ohar egiteko gogoaz geratzen zaigun arren.

Hausnarketarik garrantzitsuena, dena den, liburuaren mamiarekin lotuta etorri beharko luke, alegia, zer berririk ekartzen digu liburu honek, lehendik ez genekienik? Ez da erraz erantzuteko galdera bi arrazoi nagusirengatik: lehenengo eta behin Sabino pertsonai historiko ezaguna delako gure artean eta, ondorioz, guztiok dugulako hari buruzko oinarrizko ezagutza batzuk eta irudi topiko bat; eta, bigarrenik, irudi hori, agian, topikoa delako hitzaren zentzurik okerreanean, alegia, arrunkeria zenbaitez osatutako irudi ez bereziki egia. Bi mutur horien artean ez da erraza igeri egitea.

Sabino Aranari buruzko topiko nagusia, ezaguna denez, haren arrazakeriari buruzkoa da, alegia, Sabinok espainolak gorrotatu eta mespretxatzen zituen hain juxtu ere *azpiko arraza* batekoak zirelako. Beste hitz batzuekin, Arana Goiri arrazista porrokatua izan zen, hori dio topikoak. Ez da nire oraingo asmoa Sabinoren ideologiaren azterketa bat egitea, baina liburu honi dagokionez irakurleak sorpresa txiki bat hartuko du ikustean “barne-muinetako” Sabino honen gutunetan ez dagoela *maketo* hitzaren aipamenik ia-

ia, eta ezta kontsiderazio xenofoborik batere ez: “maketófila villa” [Bilbo] (202. or.) bezalako bizpahiru aipu, besterik ez. Ez dago aipamen gutxiesgarririk, harrigarria kontuan izanik arrazakeria dela beti Sabinori buruz hitz egitean berehala-berehala aipatzen den kontzeptua. Kasualitatea ote? Hipotesi gisa aurreratu daiteke gutunok pribatuak izanik, Sabinok ez zuela mota horretako solasik erabiltzeko beharrik sentitu behin ere ez. Ondorioz, haren *maketofobia* (testigantza ugari dugu horretaz) tresna politiko hutsa ote zen, iritzi publikoa mobilizatzerara bideratua? Gaiak, dudarik gabe, tratamendu xeheago bat mereziko luke, prentsan argitaratu zituen artikuluetan aurkitzen diren baieztapen suhar eta mila aldiz aipatu horiek (beti berberak) gero ez baitute korrelaturik haren bizitza pribatuan. Ea norbait animatzen den.

Aldiz, irakurleak lerroz lerro behin eta berriro akabera barik aurkituko duena da erlijio katolikoarekiko aipamen beroak. Gaia omnipresentea da bere idatzietan, berdin da norekin baina, bereziki, bere emaztegai eta emaztearekin, Nikolerekin; hau da, harremana zenbat eta estuagoa izan, zenbat eta pertsonalagoa, zenbat eta intimoagoa, ugariagoak dira erlijioari eta fedeari egindako aipamenak. Alegia, barne-muinetako Sabino gizon erlijioso da erraietaraino, fede pertsonal gartsu baten jabe. Fede hori da, inolako dudarik gabe, bere bizitzaren iparra maila guztietan, bai politikan, bai gizartean eta, baita ere, bizitza familiar, pertsonal eta intimoan. Hori da bere pertsonalitatearen giltza, gutun sorta honetatik ondoriozta daitekeenez inolako zalantzarik gabe. Jar dezagun adibide bakarra, hona nola planifikatzen duen bere ezkontza: ezkondu aurretik hiru egun Loiolan gogo-jardunak eta konfesio orokorra egiteko; ondoren ezkondu eta egun berean trena hartu Lourdesera joateko eztei-bidaian (105. or.). Baina zientoka adibide jar daiteke. Aipu bakar bat, emaztegaiari zuzendua: “Tú, mia;yo, tuyo; y los dos para Dios. Tú amándome á mí; yo, amándote á tí; los dos amándonos en Dios y amados por Dios. Los dos, unidos en este mundo, sirviendo a Dios y bendecidos por Dios; los dos, unidos en el Cielo, bendiciendo á Dios y glorificados para siempre por Dios. Mira, Nikole: si Dios quiere antes de medio año estaremos casados. Pero, al casarnos, no busquemos los goces de este mundo: tengamos siempre nuestra mirada en el Cielo. Cuando nos unamos en matrimonio, yo habré vivido treinta y cinco años. ¿Podré vivir otros tantos después? No lo creo. De todas maneras, me pasarán tan pronto como los que hasta entonces han pasado. Se pasarán en un abrir y cerrar de ojos y moriré. Tú probablemente quedarás en este mundo algunos años más, y buena falta me harán tus oraciones; pero pronto también me seguirás. Ahora bien: en el otro mundo, ¿nos valdrá algo lo que hayamos disfrutado en éste? Nada, absolutamente nada. ¿Nos apenará algo lo que hayamos padecido en este mundo? Nada, absolutamente nada. ¿Qué será lo único que nos importe entonces? El haber salido de esta vida con la conciencia limpia de pecados y bien cargada de buenas obras.” (74.or.). Hori da bere emaztegaiari ezkontza aurretik proposatzen dion bizitza-proiektua.

Nikoleri igortzen dizkion 115 gutunak dira, dudarik gabe, liburu honetako altxor nagusia, hor agertzen baita, bete-betean, barne-muinetako Sabino, eta hori dela-eta komentario berezi batzuk merezi dute. Lehenengo eta behin, Sabinoren erlijiotasuna XIX. mende bukaerako erlijiotasun integrista eta militantea da, argi eta garbi, nahikoa bitxia Vatikanoko II. Kontziliotik datorren erlijiotasunaren aldean, baina komenigarria da

erreparatzea bere garaian ere ez zela guztiz orokorra: orduko katoliko gehienak ere ez ziren hain zorrotzak eta erlijioari hain atxikiak, ez hirietan, ezta baserrietan ere. Alegia, Sabino honetan ere *berezia* zen, ez guztiz aparteko kasua, baina ezta ere gizarteko ohitura zabalduenekin bat egiten zuena. Beste hitz batean esanda, orduko gizarte-ohituren arabera Sabino *debotoa* zen, baina, hona bereizkuntzarik handiena, bere debototasuna batez ere maila pribatukoa zen. Harrigarria badirudi ere, Sabinok ez zuen sentitzen Elizaren hierarkiarekiko eta apaizekiko menpekotasunik erlijioaz haraindi; bereziki, ez dirudi Elizaren esku hartze politikoak begi onez ikusten zuenik, eta bereziki notagarria dena, ezta ere santutasunezko arrandia publikoak. Aitzitik, bere erlijiotasuna pribatua zen, intimoa. Ildo honetan esanguratsua da Unamunori buruzko aipu hau: “Según referencias fidedignas, Unamuno en su adolescencia gracias a una religiosa educación recibida en su familia, era no sólo de buenas costumbres sino también piadoso, llegando hasta lo que suele llamarse *beato* (lo que ciertamente está muy lejos de la religiosidad sólida y no es señal de verdadera convicción).” (255 or.). Sabino Arana jansenista bat? Hori da liburu honek bete-betean iradokitzen digun ikerlerroa. Eta, noski, jansenismoak ondorio sozial eta politiko handiak ditu, hala nola luteranismoak edo kalbinismoak, bi korrelatu baino ez aipatzearen. Honetan ere ikerketa xeheago bat eskertzekoa litzateke.

Baina ziur aski ikerketarik berehalakoena, inor animatzekotan, emakumeaz duen irudiak sortuko du: emakumearen irudia Sabino Arana baitan, horra gaia, mamitsua eta ederra. Ildo honetan beharrezkoa da Nikoleri zuzentzen dizkion gutunak beste kontsiderazio batzuekin erkatzea, adibidez, Angel Zabala lagunari Nikolez (eta emakumeez oro har) gordin-gordin baina era berean ilun xamar esaten diona (192-193 or.), edo neure buruan ernatu den beste honekin: Nikolerekiko gutunak batez ere bi alditan pilatzen dira, kartzelan dagoenean eta Nikole moja-ikastetxean dagoenean ezkontzarako prestatzen, eta zirkunstantzia horiek eragin nabarmena du gutunen estiloan eta edukian, bereziki azken kasuan. Izan ere, baserritar hutsa izanik eskola gutxikoa zen eta, ondorioz, nekez egiten zuen jaun diputatu baten emaztearengandik espero zitezkeen hainbat gauza: gaztelaniaz ondo hitz egin, idatzi, irakurri eta mundu burges eta hiritarrean aise mugitu. Sabinok erabaki zuen ikasi beharra zeukala hori guztia eta moja-eskola berezi batera zenbait hilabetetarako igorri. Baina zergatik aukeratu zuen Sabinok horrelako emaztea, bere familiaren eta lagunaren iritzi sendo eta erabatekoari muzin eginez? Horra ikerketa horrek erantzun beharreko beste galdera bat, baina momentuz esan dezagun Nikolerekin darabilen estilo sermoilaria (bere gutunak sarritan sermoiak edo dotrina-lezio hutsak ematen dute) ziur aski neurri handi batean egoerak eragindakoa dela: Nikole eskolan zegoen ikasten eta Sabinok bere gain hartu zuen ikasketa prozesu horretan laguntzea. Zantzu guztien arabera, dena den, beldurrik gabe baieztatu daiteke emaztegaia ume baten moduan tratatzen zuela, bete-betean, baina hori da gizon eta emakumearen arteko harremanez zeukan iritzi sendoa. Bego hor.

Eta Nikolerekin bukatzeko pasa gaitzen beste gai batera: euskararen erabilera. Duela urte gutxi batzuk Jurgi Kintanak artikulu jakingarri bat idatzi zuen gai horri buruz: “Ba al zekien Sabino Aranak euskaraz mintzatzen?” (*Uztaro*, 63, 2007, 21-29) eta gaia ederto laburbiltzen duelakoan nago, alegia, Sabino gai zen euskaraz mintzatzeko eta

hala mintzo zen sarri, baina ez erraztasunez eta, batez ere, beti gizarte maila baxuko jendearekin: baserritarrak, arrantzaleak, jende xehea; halaber, garbi dago euskarari buruz zeukan jarrera aldatuz joan zela euskaldun *erreal*ekin kontaktua ugaritu ahala, batetik bere garbizalekeria motelduz eta ahozko jardun arruntean baztertuz. Bat nator balorazio horrekin baina zehaztasun garrantzitsu batekin: Sabino duela urte gutxira arte esan izan dena baino hobeto eta errazkiago mintzo zen euskaraz, horretan ez dago dudarik, baina neuk esango nuke Kintanak iradokitzen diguna baino hobeto oraindik: garbi dago, adibidez, bere emaztearekin arrunki euskaraz mintzo zela gehien-gehienetan, batez ere ezkondu aurretik, baina baita ere gero; garbi dago, gainera, bere emaztearen familiakoekin (aita, ama...) beti euskaraz mintzo zela eta, ondorioz, badirudi Abiñan (emaztearen baserria) zegoen bitartean inguruko jende guztiarekin mintzo zela euskaraz normaltasun osoz. Gutunotan ez dugu aurkitzen baieztapen borobilik egiteko frogarik, baina bai zantzu garbiak. Dena den, garbi dago ere, itxura guztien arabera, ez zeukala aparteko problemarik Sukarrietako baserritar baten edo Bermioko arrantzale baten euskara aditzeko (hots, ulermen bikaina) baina, itxura guztien arabera bere ahozko jarduna aski mugatua zela eta ziur aski egunerokotasunaren gauza txikiekin hasi eta amaitzen zela. Beste hitz batzuekin esanda, Sabinorena sukaldeko euskara zen, euskal-gaizto bat, Oñatin oraindik ere mota horretako hiztunek darabiltena izendatzeko erabiltzen den berba zehatzera joz, ezagunak baitira oraindik ere mota horretako hiztunak euskal giroko herrietan. Laburbilduz, Sabino Aranak euskal-gaiztoan hitz egiten zuen. Nik neuk uste dut Nikolerekin gehienetan euskaraz egingo zuela, Abiñan bereziki, bere familia eta giroan zegoenean, eta ez zitzaiola asko kostatuko horrela hitz egitea, finean, gorago esan dugun legez, ume baten moduan tratatzen zuen: hortxe dago ziur aski bere praxi linguistikoaren giltza. Bi aldiz pentsatuz gero ez da gaur eguneko euskaldun askorenaren aldean desberdina: euskara ume eta zaharrekin hitz egiteko hizkuntza bat da, edo norberaren adinekoekin izatekotan, baserriko kontuak, eguraldia, ehiza eguneko pasadizoak eta antzekoak, hots, sagardotegiko euskara. Negozioak, politika, mundu intelektuala, gauza moderno eta garrantzitsuak, gaztelaniaz. Horraino ailegatzen zen gure Sabino baina hori, nire ustez, topikoki uste izan duguna baino gehiago da eta Kintanak iradokitzen duena baino gehiago ere.

Gaineratu beharko litzateke Sabinoren euskara ez zela hor amaitzen baizik eta, *erabilera tradizional horretaz gain*, euskara berri bat asmatu nahi izan zuela, aberri berri bat eta historia berri bat asmatu zuen bezala. Baina nire ustez bi lerro desberdin dira, desberdinki epaitu eta aztertu beharrekoak. Gehiegi luzatzen ari gara eta bego kontua horrela. Hori bai, ez naiz geratuko esan gabe Azkuerekin daukan paralelismoa euskararen puntu honetan oso nabarmena dela: Azkuek ere euskara ia guztiz ahaztuta zeukalarik seminarioan pasatutako urte luzeen ondorioz, euskara berri bat asmatu nahi izan zuen goitik behera (Sabinok bezala, ia berdin-berdin) eta, halaber, euskara *errreal*a berreskuratzen hasi zen bere familiarekin. Hipotesi gisa esan dezakegu Sabino bizi izan balitz eta urte luzeak Nikolerekin ezkondata pasatu, beharbada Azkuerena bezalako eboluzio bat izango zuela eta euskara arrunta normaltasun osoz hitz egitera helduko zela. Zentzuzko hipotesia delakoan nago.

Luze hitz egin dugu Nikoleri buruz, baina beste 210 gutun geratu zaizkigu aipatu gabe. Zer esan horretaz? Politika gaiak sarritan ateratzen dira, gehienetan egunerokotasunaren kontu txikien bidez eta beste batzuetan modu doktrinarioago batean (adibidez, Arrandiagarekin edo Luis Elizalderekin dituen gutunetan), baina beude ñabardurak eta albiste zehatzak espezialistentzat. Ez dugu hemen tratatuko esateko ez bada, adibidez, haren kartzelaldien edo Iparraldera egin zuen ihesaren ñabardurak direla, gutunetan zehaztasun osoz kontatuak, ziur aski interesgarrienak. Datu bat: 1902ko azaroan Iparraldera ihes egin bazuen izan zen beldur zelako 16 urteko kartzelaldia ezarriko ote zioten Estatu Batuetako presidenteari telegrama bat bidali nahi izate hutsagatik, zinpekoen epaimahai batek errugabetua izan ondoren fiskalaren apelazioa izan baitzen tartean (orduan ere) eta kasua berriro zabalduko zutela ematen zuen (317. or.). Orobat, espezialistek berri ugari aurkituko dute kontu zehatz gehiagori buruz, adibidez, hauteskundeetarako aliantzak eta maniobrak, edo haren *eboluzio espainolista* ospetsua, baina neu bezalako irakurle arrunt batek ororen buru eskertuko duena da, izenburuak zuzen dioen bezala, *barne-muinetako Sabino Arana* aurkitzea, hezur-haragizko gizon bat, bere poz, kezka eta miseria guztiekin, handi nahiz txiki. Kontzientzia katoliko estu batek gidatutako gizon zorrotz bat, aldi oro bere inguruko guztiaren kontrol osoa izan nahi duena, obsesiboki, bai partiduarena zein lagunena edo emaztearena. Agian balio dezake Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca*-n (1979) esan zuena hemen gogoratzea: “Así era él: lo que teóricamente le convencía, lo llevaba a la práctica con lógica inflexible, sin consideraciones ni concesiones al realismo o al pragmatismo.” (294. or.). Ez dakit aita Villasante agurgarria konturatzen ote zen zein puntutaraino zebilen zuzen, eta zein puntutaraino kristautasuna zen haren borondatea, bihotza eta luma gidatzen eta gobernatzen zuena, baina esango nuke haren azken konfesioa entzun zuen aita Barinaga frantziskotarra zela (eta ez jesuita) zehazteko adore intelektuala izan zuenak (Villasante, 293. or.) agian kontuan hartuko zuela neuk, apalki, lerro hauetan iradoki dudan Aranaren jansenismoaren aldeko hipotesia, hain topikoki errepikatu izan den *jesuitismo*arekiko erreferentzia behingoz baztertuz.

**Post scriptum:** Bada kontu zehatz bat aipamen berezia merezi duena eta adabaki gisa ez bada ere aipatu nahi nukeena, horra: 1893an Jose Ignazio Arana jesuitari igortzen dion gutun batean, dirudienez horrek eskatuta, azalpen xehe bat egiten dio *Bizkaya por su independencia* (1893) liburuaren hasieran txertatzen duen euskarazko pasarteaz, hots, anaia Luisi egiten dion eskaintza ospetsua (1882ko *konbertsioa*); pasarte horren iruzkinetatik bat hemen kopiauko dut: “Eskintxen dabat. – Te lo prometo. El eskintxen no presenta más que la permutación de tz en tx, muy usual. El dabat ofrece dos particularidades: la permutación de au en ab, como en gaba por gaua, naban por neuan; y la radical au en vez de eu, pues así se usa en **Abando, donde decimos dautsut, dauat, daunat, etc., que son las formas primitivas.**” [letrakera beltza neurea] (360 or.). Bi ohar egin daitezke hemen, bata filologikoa (dialektologikoa) eta bestea soziolinguistikoa. Lehenengoari dagokionez, gogoratu beharko genuke filologoen artean eztabaidak izan direla erabakitzeke ea nondik datorren “au” forma Bizkaiko aditz laguntzailean, XIX. mende bukaera arte ez baita dokumentatzen; Azkue jo izan da sarritan berrikuntza horren eragiletzat (bere gaztaroko fase garbizalenean), baina badirudi egiazko aita Sabino Arana izan daitekeela edo, agian, posible dela

aldaera azpidialektal hori biek Abandoko hizkeratik jasotzea eta *jatorrizkotzat* jotzea (oker, gaur egun dakigun bezala). Bilbotarrak ez direnentzat argi dezagun Abando gaur egun Bilboko erdialdeko auzo bat dela, hots, Corte Inglés eta Gran Via ingurua, hantxe dagoelarik ere Sabin Etxea (Sabinoren jaiotetxea). Bada, Abando, Sabinoren jaioterria, herri independentea izan zen 1890era arte (hain juxtu ere Sabinoren aita Abandoko alkate izan zen), urte horretan Bilbok bereganatu zuelarik, eta baditugu frogak pentsatzeko Sabinoren haurtzaroan eta gaztaroan artean oso herri euskalduna zela: adibidez, Bonaparte printzeren mapan (1863) herri euskaldun huts bezala agertzen da, Deustu edo Begoña bezala. Sabinoren haurtzaroa eta gaztaroa, beraz (eta hemen dator bigarren oharra) herri euskaldun batean garatu ziren, agian ez Ondarroa bezain euskalduna (Bilbora joateko aski zen Areatzako zubia zeharkatzea) baina bai aski euskaldun berak esan ahal izateko “se usa en Abando, donde decimos dautsut...”. Beraz, gorago esan dugunari itzuliz, esango nuke Sabinok euskararekin izan zuen kontaktua tradizionalki uste izan duguna baino intentsuagoa izan zela bai haurtzaroan bai gaztaroan: herri euskaldun huts batean jaio zen (1865) eta bere etxean gurasoek euskara erakutsi ez bazioten ere (familia aberatsetan gero eta gehiago gertatzen zen bezala) bere ingurune hurbila oso euskalduna zen eta, ziur aski, bere gaztaroan bertatik bertara ikusi ahal izan zuen ordezkapen linguistikoaren prozesua bere herrian bertan. Orobat, kontuan hartu beharrekoa da ez zela beti Abandon bizi izan, baina bai aldi luze batzuk beragan eragin handia izan zezaketenak. Haren biografiari pasada azkar bat emanez: Abandon jaio zen (1865) eta bertan bizi zortzi urte egin arte, bertako eskolara joanez; 1873an bere familiak Iparraldera ihes egiten du eta zenbait urte egiten dute hantxe; 1876an Hegoaldera itzulirik, Sabinok Orduñako jesuiten barnetegian ikasiko du (etxetik kanpo, beraz) baina 1881eko ekainean etxean zen gaixoaldi luze baten eriondoan pasatzen, eta hurrengo urtean hain juxtu ere bere anaia Luisek bihurtzen du abertzaletasunera etxeko baratzean izandako elkarriketa batean; 1883an, 18 urteekin, Bartzelonara doa bizitzera bere familiarekin eta han biziko da 1888ra arte, urte horretan Abandora itzultzen delarik. Ondorioz, Abandon bizi izan zen 8 urtera arte eta 23 urtetik aurrera, baina pentsatzekoa da tartean denboraldi aski luzeak emango zituela bertan oporraldietan eta, hortaz gain, ziur dakigu 1881ko ekainetik 1883ko irailera arte Abandon bizi izan zela, Orduñan hartutako tuberkulositik osatzen (beraz, 16-18 urte bitartean Abandon bizi izan zen). Datu biografikoak J.L. de la Granjaren artikulu honetatik hartuta daude: “Cronología de Sabino Arana (1865-1903)” *Sancho el Sabio* 31, 2009, 285-298 or. Nire ustetan ondorio garbi bat dugu: Sabino Arana txikitatik egon zen kontaktuan euskararekin, ez zen izan euskara zerotik abiatuz ikasi zuen euskaldun berri huts-hutsa, adibidez, Arturo Campion bezala.

**Pruden Gartzia**